

Espedientearen kodea: 2025ZZ020006

Espedientearen gaia: 2025ean arlo sozioekonomikoan euskararen erabilera sustatzeko dirulaguntzak emateko oinarriak eta deialdia.

Dekretuaren zenbakia: 2062/2025

IRAGARKIA

Alkateak, 2025/11/26 dataz, honako ebazpena eman du:

2025eko apirilaren 7ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren Oiartzungo udalerrian 2025ean arlo sozioekonomikoan euskararen erabilera sustatzeko dirulaguntzen oinarriak eta deialdia. Dirulaguntza horiek emateko, kontuan izango da Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantza eta 2025-2027rako dirulaguntzen Plan Estrategikoa.

Dirulaguntza hauek ordaintzeko, guztira, 21.800,00 euroko izendapena eginda dago, Oiartzungo Udalaren 2025 urteko aurrekontuko 1 0321.481.335.00.04 2025 zenbakidun partidaren kontura. Jasotako eskaerak oinarrietan adierazitako irizpideen arabera baloratu dira eta eskaera egin duen entitate bakoitzari dagokion dirulaguntza zehaztu da.

Hizkuntz Normalizaziorako teknikariaren txostena ikusita eta Toki Jaurbidearen Araudiak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzan,

ERABAKI DUT

Oiartzungo elkarteetan, merkataritza/ostalaritza establezimenduetan eta enpresetan euskararen erabilera sustatzeko, guztira 9.041,19 euroko gastua onartzea eta beheko koadroaren arabeko dirulaguntzak ematea eskaera egin duten entitateei.

ENPRESAREN IZENA	Kanpoko errotulazioa	Normalizazio ekingintza orokorrak	Ticketbai	Puntuak	Webgunea	ESKATZAILEARI guztira
OREA okindegia	0,00	877,43	0,00	0,00	0,00	877,43
SAIZARLAN, S.L.	600,00	1250,54	0,00	0,00	0,00	1850,54
ARISTI jatetxea	300,00	0,00	0,00	0,00	0,00	300,00
LAUBURU AUTOAK S. COOP.	269,23	0,00	0,00	0,00	0,00	269,23
KOXKA garbigunea	300,00	0,00	0,00	0,00	0,00	300,00
GARBIÑE estetika zentroa	300,00	0,00	0,00	0,00	0,00	300,00
1545 ARGITALETXEA SL	0,00	744,00	0,00	0,00	0,00	744,00
MECANICA IRUBI TAILERRA	0,00	0,00	0,00	0,00	400,00	400,00
C.C. CARREFOUR SA	0,00	2000,00	0,00	0,00	0,00	2000,00
ASEA BROWN BOVERI SA	0,00	2000,00	0,00	0,00	0,00	2000,00
GUZTIRA ATALKA	1769,225	6871,96	0,00	0,00	400,00	9041,19

Ordainketa udal aurrekontuko 1 0321.481.335.00.04 2025 (A-872-2025) diru atalera bideratuko da.

Eta horren berri ematen dizuegu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOA aurkez dezakezu Administrazioarekiko Auzitarako Donostiako Epaitegian BI HILABETEKO epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluan ezarritakoaren arabera. Eta Administrazio Publikoaren Prozedura Arrunta arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114. artikuluekin bat etorritik.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoren aurretik, BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari HILABETEKO epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita. Hori guztia, aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluekin bat etorritik, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dituzun egintza edo errekurtsuak aurkezteari kalterik egin gabe.

Oiartzunen, sinaduraren egunean.

Idazkaria. Elektronikoki sinatua



EKS | CSV: ESKU686ff98d-e240-4147-b6e3-fbc4536343a3

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=06310>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=06310>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	2025ZZ020006-Iragarkia/Iragarkia (OIARTZUNGO UDALA)